


Poesialdia

DONOSTIAKO POESIAREN ASTEA
SEMANA DE LA POESÍA DE SAN SEBASTIÁN

2019 MARTXOA | MARZO 20-25



Donostiako Poesiaren Astea gaur, martxoak 20, hasiko da. Lehen jarduera hau **Donostia Kultura Poesia Sariaren** emate ekitaldia izango da. Saria **Gorka Salces Alcalde** jasoko du.

Aurten bigarren edizioa duen lehiaketa hau 35 urtetik beherako euskal poeta gazteak sustatzeko sortu zen. Gorka Salcesek 1.000 euro eskudirutan eta Imanol Larrinaga pintorearen akuarela bat jasotzeaz gain, bere lana argitaratuta ikusiko du **Balea Zuria argitaletxearen** lankidetzari esker, eta ekainean parte hartuko du Poesia eta Pentsamendua errexitalean.

Eli Tolaretxipi, Aritz Gorrotxategi eta Itxaro Bordak osatutako epaimahaiaik saria *Ego, demos, cosmos* lanari eman dio. Guztira hamahiru lan aurkeztu ziren.

Egilea:

Gorka Salces Alcalde (Portugalete, 1986). Historiako lizentziatura eta masterra bukatu ostean, *Berria* egunkarian bekadun-erredaktore lanetan aritu zen urtebetetan, euskaldunek komunikabideen aurrean dituzten iritziak, ohiturak eta jarrerak aztergai dituen doktore-tesian murgildu aurretik. Gaur egun Historiako irakasle lanetan dihardu bigarren hezkuntzan, eta bere ikasleek ez dakite idazten duenik.

2013an Ermua Hiria literatur lehiaketa irabazi zuen *Apirla ñirñirka* poemarioarekin, eta orduz geroztik bi bigarren sari jaso ditu Pasaia Hiria (*Haize takikardikoa*, 2014) eta Hondarribiako Bordari (*Ekinokzio bete Gales*, 2017) lehiaketetan. Askoz gehiago ditu saritu gabeko lanak. *ITU* zein *Lekore* literatur aldizkarietan ere kolaborazioak argitaratu ditu tarteka.

“Diletantea eta prokrastinatzailea izanagatik, influentzia txarrei esker zenbait egitasmo kulturaletan inplikatzeko plazera” izan du, eta egunotan euskaraz propio sortutako lehen rol jokoa (*AtopiaRPG*) idazten ari den lan taldean dihardu, proiektuak 2018ko Durangoko Azokako Sormen Beka jaso ostean.

Baina Poesiaren Asteak hilaren 25era arte jarraituko du, egintza poetikoarekin erlazionatutako beste proposamen interesgarri batzuekin.

Adam Zagajewski poetaren parte-hartzea bertan behera

Bihar, martxoak 21, Poesiaren Nazioarteko Eguna dela eta, **Adam Zagajewski** poeta poloniarren parte-hartzea izatea espero genuen, baina osasun arazoak direla eta, ezin izango du Poesialdian egon eta Ramón Andrés poetarekin programatuta zegoen solasaldia bertan behera gelditu da.

Programazioan aurrera eginez, bihar, martxoak 21, 18:00etan, Intxaurrendoko Kultur Etxeko Liburutegian errexitaldi poetiko bat izango dugula Musikeneko musikari gazteekin batera, izen hau duen jardueran. ***El Rincón de la Poesía – Olerkiaren Txokoa.***

Ostiralean, martxoak 22, Poesialdiak bi hitzordu izango ditu, biak 19:00etan eta poesia zein musikarekin, sorkuntza partekatzen duten elementuak baitira: lehenengoa, Egiako Kultur Etxeko liburutegian izango da, eta **Jorge Pascual** poeta gazteak errexitala eskainiko du **Jorge González** guitarra-jotzailearekin batera; eta **Idurre Eskisabel eta Dana D'Capricho** Liburutegi Nagusiko Ektialdi Aretoan (San Jeronimo Aretoan) izango dira.

Larunbatean, martxoak 23, 11:00etatik aurrera eta familientzat San Jeronimo aretoan, **Itziar Zubizarretak eta Taun Taun** taldeak ***Lau Haizetara*** lana eskainiko dute; bertan, hainbat hizkuntza artistiko nahasten dira.

Eta 2019ko Poesiaren Astea amaitzeko, UPV/EHUrekin batera, gaueko emanaldi poetiko bat programatu da, martxoaren 25ean, Hizkuntza Frantsesaren Eguna ospatzeko. **Campus Poétique** honek Gipuzkoako campuseko zentroetako pertsonala eta **Maddi Zubeldia** idazle eta abeslaria bilduko ditu.


Ekitaldi hauetan guztietan sarrera doakoa izango da, edukiera bete arte.

Informazio gehiago webgune honetan: www.donostia-kultura.eus

Poesialdia

DONOSTIAKO POESIAREN ASTEA
SEMANA DE LA POESÍA DE SAN SEBASTIÁN

2019 MARTXOA | MARZO 20-25



La Semana de la Poesía de Donostia comienza hoy, 20 de marzo, con la entrega del **Premio Donostia Kultura de Poesía a Gorka Salces Alcalde**.

Este certamen, que celebra este año su segunda edición, surgió para promocionar a jóvenes poetas vascos y vascas menores de 35 años. Gorka Salces, además del premio en metálico de 1.000€ y una acuarela del pintor Imanol Larrinaga, verá publicada su novela gracias a la colaboración de la editorial **Balea Zuria**, y participará en el mes de junio en el recital Poesía y Pensamiento.

El jurado formado por Eli Tolaretxipi, Aritz Gorrotxategi e Itxaro Borda ha otorgado este premio a la obra *Ego, demos, cosmos* de entre las trece presentadas entre los meses de septiembre y diciembre de 2018.

El autor:

Gorka Salces Alcalde (Portugalete, 1986). Tras licenciarse en Historia y acabar un máster, fue redactor becario durante un año en el diario *Berria*. Posteriormente, trabajó en su tesis de doctorado donde estudiaba las opiniones, costumbres y actitudes que los y las euskaldunes muestran ante los medios de comunicación. Actualmente trabaja como profesor de Historia en educación secundaria y su alumnado no sabe aún que es escritor.

Algunas de obras que han conseguido reconocimiento son *Apririla ñirñirka* (Premio Ciudad de Ermua de Literatura, 2003), *Haize takikardikoa* (Ciudad de Pasaia, 2014), *Ekinokzio bete Gales* (Premio Bordari de Hondarribia, 2017), pero además colabora en las revistas literarias *ITU* y *Lekore*.

Pese a definirse como “dilectante y procrastinador, y gracias a las malas influencias, colabora voluntaria y gustosamente en diferentes iniciativas culturales”, como por ejemplo en equipo de trabajo del primer juego de rol creado en euskera (*Atopia RPG*), después de que el proyecto consiguiera la Beca de Creación del Durangoko Azoka en 2018.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

www.donostiaikultura.eus

Suspendida la visita de Adam Zagajewski

Mañana, 21 de marzo, Día Internacional de la Poesía, no podremos contar con la presencia del poeta polaco **Adam Zagaweski** por indisposición. Esto conlleva la suspensión del coloquio previsto con el también poeta Ramón Andrés. Recordamos que Adam Zagajewski ha sido galardonado con el Premio Europeo de Poesía 2010 y con el Premio Princesa de Asturias de las Letras 2017.

Pero Poesialdia tiene una cita mañana, 21 de marzo, las 18:00 horas en la Biblioteca del Centro Cultural Intxaurreondo donde habrá un recital poético junto a jóvenes músicos de Musikene en la actividad denominada. ***El Rincón de la Poesía – Olerkiaren Txokoa.***

El viernes, 22 de marzo, tendrá dos citas, ambas a las 19:00 horas y con la poesía y la música como elementos que comparten la creación: la primera en la Biblioteca del Centro Cultural de Egia, con un recital del joven poeta **Jorge Pascual** junto al guitarrista **Jorge González**; la segunda con **Idurre Eskisabel y Dana D'Capricho** en la Sala de Actividades de la Biblioteca Central (San Jerónimo).

El sábado 23, a partir de las 11:00 horas, en la sala San Jerónimo, **Itziar Zubizarreta** y el grupo **Taun Taun** ofrecerán su trabajo **Lau Haizetara**, donde confluyen diferentes lenguajes artísticos. Esta actividad está dirigida público familiar.

Y para finalizar la Semana de la Poesía 2019, junto a la UPV/EHU se ha programado una velada poética como celebración del Día de la Lengua Francesa que se celebra el 25 de marzo. Este **Campus Poétique** reunirá a personal de los centros del campus de Gipuzkoa y a la escritora y cantante **Maddi Zubeldia**.

La entrada a todas estas actividades será libre hasta completar aforo.

Más información en la web www.donostiaikultura.eus